




GEHIGARRI BEREZIA

Saritutako lanak

Ipuinak

1. saria: Bi gerra arteko udara. *Iñaki Iturain*
 2. saria: Pasioaren indarra. *Garazi Urretabizkaia*
 3. saria: Hutsik
- Accesita: Lokartzeko ipuinak. *Marisa Arruabarrena*

Olerkiak / Bertsoak

1. saria: Hutsik
 2. saria: Omenalditxo bat. *Garazi Urretabizkaia*
 3. saria: Herritik urruntzean. *Goiuri Unanue*
- Accesita: Erabaki dut *Marisa Arruabarrena*

Bi gerra arteko udara

Iñaki Iturain

1939ko udara da, uztailleko bosgarren eguna. Therese, Toki Alai hotelean ostatu hartuta dagoen neska frantziar gaztea, bapo gosalduta ondoren, kalera ateratu da. Hotelaren atarian, lastozko kapela ile kiribilduaren gainean ipini, eta esku batez begietan itzal eginez, zubi aldera begira geratu da. Gizon batzuk, hiru urte lehenago 'gorriek' botatako zubia berreraikitze lanak bukatuta, garbiketala-lanak egiten ari dira. Zubia apainduta dago bi aldeetan: Espainiako bandera gorri-horiak eta tarteka Francoren erretratuak, nor agintzen duen garbi uzten dutenak. Soldadu errepublikar presoak ari dira lanean, gorriak. Haiek zaintzen, fusila eskuetan, gerra irabazitako soldaduak, urdinak, nazionalak, Francorenak. Haien gainean kartel bat dago zintzilik: 'Brigadas de Navarra'. Izen hori emana dio herriko udal berriak dagoeneko trafikoari irekia dagoen zubiari. Therese kamioi zahar bat ikusi du beste aldera igarotzen.

Gaur herenegun baino lasaiago dago zubia. Igandean zubi berriaren inaugurazioa izan zen eta herria kanpoko jendez bete zen, agintariak, militarrek, falangistak, apaizak... denak uniformatuta. Meza entzun ondoren, zubira joan ziren desfilean, musika-banda baten martxa militarren erritmoan. Zubi hasieran, Francoren erretratu handi bat ezkututzen zuen zapia kendu eta, jenerala agerian uztearekin batera, haren aldeko oihuak egin zituzten: *¡Arriba España! ¡Viva Franco!* Therese beldurrez ibili zen gizon haien denen artean, baina hala ere ausartu zen argazki gutxi batzuk egiten; bai zubian bai ondoren plazan egin zuten bazkaritan. Eta harro zegoen bere buruaz.

Therese gaur ere erretratu-makina darama lepotik zintzilik. Fotografiak egitera etorria da Oriora. Antropologiako ikaslea da Bordeleko unibertsitatean eta euskal kostaldeko arrantzale-herri txiki honetako ohiturak argazkitan hartu nahi ditu eta, bide batez, Frantzia ere zabaltzen hasi den gerra-giro gaiztotik ihes egin eta aste batzuetan lasai egon.

Neskaren begi handi ameslariak hara eta hona ibili ondoren, puntu bat enfokatu dute, eta kameraren begia bere hirugarrena balu bezala, zubian lanean diharduten presoek zuzendu die. Botoia sakatzeko prest dagoela, marru bat entzun du atzetik, zakar: *¡Señorita! ¿Pero qué*

hace? ¡No se puede hacer fotos aquí! Neskak hartu duen sustotik oraindik bere onera etorri gabe, galtza eta gorro militarra dituen alkandora urdineko bibotedun bat hurbildu zaio handik alde egiteko aginduz, harro asko. Paparrean falangisten 'el yugo y las flechas' ikusi dizkio.

Gogoia etorri zaio bera herritar libre bat dela erantzuteko, eta eskubidea duela argazkiak egiteko; baina barrutik zerbaitek esan dio hobe duela isildu eta aurrera egin. Falangistaren begirada gogor eta hitz zatarren gainetik, preso batek irribarrez bidali dion keinu alai geratu zaio gogoan. Moilatik barrena, plaza aldera jo du. Udaletxera orduko, danbor-hotsa entzun du: ta-rra-pa-ta-ta. Hotsak bideratuta, Xixario aurreko plazatxora iritsi da. Zenbait herritar daude borobilean bilduta, danbor-hotsak erakarrita. Haien aurrean aguazila, eta haren ondoan danborraria. Aguazila alkate jaunaren bandoa irakurtzen hasi da: *Por orden del señor alcalde, voy a dar lectura al siguiente reglamento de playa aprobado el día 23 de junio del actual en esta localidad...*

Neska gazte frantsesa hantxe egon da, aguazilaren hitzak arreata osoz entzuten. Bide batez, jendearen buruen artetik, argazki eder bat ere egin die aguazil eta danborrari txapel gorriari. Hondartzako araudia osorik entzun duenean, 15 artikulua ziren bata bestearen atzetik, San Martin ermita aldera joateko zuen asmoa aldatu eta hondartza aldera abiatu da oinez, tipi-tapa. Oporretan dago eta ez dauka presarik. Azken egunotan, San Pedro festak bukatu berrikan, gelditu gabe ibili da argazkiak egin eta egin. Atzokoa ere egun ona izan zuen, arrantzaleak itsasora abiatu ziren, atunetara. Banan-banan ikusi zituen barku guztiak moilatik urruntzen; eta aurretik, gizonak baporetan sartzen, andreak eta umeak agurtu ondoren. Argazki onak egin zituen: andre bat negarrez, mutil koskor baten begirada itsaso aldera galdua, gizonak barkutik eskuez agur egiten...

Gosaritan, Toki Alaiako etxekoandeari galdetuta jakin du non dagoen herriko frontoia eta hara bideratu da. Pilotarien irudiak ere hartu nahi ditu, euskaldunen ohiturak jasotzeko bere lanean. Frontoian sartu da, baina han ez da inol, hutsik dago. Argazki batzuk egin ditu, hala ere. Pilota jokorako eremuaren ondoan

harritzar izugarri handi batzuk ikusi ditu. *Zertarako ote dira harri hauek frontoian?* Neska gazteak ez daki zer den idi-dema, baina argazkia egin dio 2.000 kiloko harriari. Frontoitik aterata, emakume bat ikusi du, panaderiatik irteten, eskuetan ogi handi bat daramala, beltz-beltza, ia soinean daramatzen jantziak bezain beltzak. Berak nolako suertea duen bururatu zaio: gosaritan ogi zuria izan du, samur-samurra, gurinarekin batera kafesnetan bustitzeko. Estraperloko ogia zer den ikasi du, etxeoandreak azalduta, eta herrian gutxi batzuek besterik ez dutela aukera ogi zuria eskuratzeko. Ogi beltzak argazkia egiteko sortu dion gogoia baino handiagoa izan da emakumearen soineko beltzarekin lotuta sumatu duen egoera tragikoak argazkirik ez egiteko iradoki dion agindua. Gerraren ondorio latzen gaineen gogoeta eginez eman ditu hondartza bideko hurrengo urratsak.

Bikamiyotan zalantza egin du zer aldetara jo. Atzo ezkerreko bidea hartu eta plaia txikira joan zen, itsasgora egokitu zitzaion eta hantxe ibili zen igerian, pizina natural hartan. Gaur, eskuin aldera hartu du, plaia handira, Antillara. Bidearen bi aldeetan lerrokatuta dauden zuhaitzen itzalpean lasai doala, aguazilari entzundako hondartzako arau batzuk dabilzkio buruan bueltaka: *En toda la extensión de la playa podrán bañarse indistintamente hombres, mujeres y niños y niñas. Las horas señaladas para bañarse en julio son desde las cinco de la mañana hasta las ocho de la noche.* Theresekek bere artean pentsatu du agindu hori betetzeko ez duela arazorik izango, baina aguazilari entzundako beste bi trabatu zaizkio buruan: *Queda prohibido el empleo de trajes que no se ajusten a las normas generales siguientes. Para mujeres: traje de baño completo que cubra la espalda, pecho, costado y sobre falda hasta la rodilla. No se permitirá en modo alguno tomar Baños de sol en toda la extensión de la playa, ni tumbarse en traje de Baños.*

Gaztea kezkatuta doa, baina egoerari aurre egitea erabaki du. Askatasun zalea da. Gainera, badago zerbait pixka bat lasaitzen duena: bera frantsesa da, zer arraio! eta ohituta dago Landetako hondartzetan lasai etzan eta eguzkia hartzen, haren berotan besoak eta zangoak kolore beltzaranaz janzten, inork eta inor molestatu gabe.

Goizeko hego haize epelak lagunduta, aisa iritsi da hondartzara, artean Landetako hondartzetako oroitzapenak buruan dituela. Eguna bero dator, eta erabaki du pare bat ordu emango dituela hondartzan eta bazkaltzera Toki Alaira bilduko dela, han, bazkal ondoren lo kuluxka

goxoa egitera.

Hondar gaineen abiatu eta putzu-ixkinaraino jo du zuzenean. Itsasoari so geratu da, bare dago, ez du arriskurik sumatzen. Pentsatu du arriskua, izatekotan, hondartzan bertan izan dezakeela, lehorrean. Bueltatu eta begirada bat eman du ezker-eskubi. Oso jende gutxi dabil, bera bezala kanpotarrak izateko itxura guztia duten familia handi samarreko guraso eta seme-alabak, eta arroken aldean bainuzain izateko itxura guztia duen gizonezko bat.

Arropa aldatzeko kaseta bat ere badago hondartzaren hasieran. Thereseri urruti samar geratzen zaio aldagela eta, zalantza une bat izan ondoren, erabaki du soinekoa eranztea besterik ez duela bainujantzitan geratzeko, eta horixe egin du. Aurrena, toalla hondar gaineen zabaldu, haren gaineen eseri eta inortxok ere ikusten ez duela, soinekoa kendu eta Miarritzen erosi zuen bainujantzi loretsua soinean duela geratu da. Di-da batean, korrika, uretara jo du. Ura gerriraino iritsi zaionerako, murgildu egin da jauzi arin bat eginda. Ederra dago ura, fresko eta garbi. Igerian ibili da, aurrera eta atzera. Ondo daki igerian eta, nahiz eta uretan bakarrik egon, ez du beldurrik. Olatutxoek kulunkan ibili den bitartean, ahaztuak izan ditu Frantziako giro nahasia, Orioko jendearen artean ere topatu duen gerra bukatu berriko beldurra eta tristura, herritar batzuen harrokeria, eta aguazilaren ahotik entzundako alkatearen aginduak eta debekuak. Burua garbi geratu zaio, pentsamendurik gabe. Igerian-igerian, azkenerako pixka bat nekatu ere egin da. Lehorreratzea erabaki du.

Arropak utzi dituen lekura joanda toalla hartu du, gorputza lehortzeko. Ondoren, hondarrean zabaldu eta haren gaineen etzan da, eguzkitan goxo. Zango lirainak luzatu ditu. Eguzkiaren beroa zabaltzen hasi zaio azalean. Gorputz erlaxatuan gogoia libre dabilkio, irudimena txori. Thereseri pentsamenduak bueltatu zaizkio, arratsaldeko hitzorduak akordatu da, zirrara bat sentituz; izan ere, antropologia-ikasle gaztea misio berezi eta sekretuan etorria baita Oriora.

Mariaren etxera joan behar du bisitan. Haren senarrak bidaila etorria da Oriora neska gaztea. Unibertsitateko ikasle gazte argazkizalearena, dena egia izanagatik ere, bere bidaiaari erantsi dion aitzakia bat besterik ez da. Bestela etorri da, bestelako zereginetara. Mariaren senarra, Manuel, ihesi joan zen Oriotik hiru urte lehenago, 1936ko irailean, Capbretonera. Han bizi da geroztik, arrantzale lanetan. Joan zenean, esperantza

zuen gerra irabazi behar zutenek irabaziko zutela, baina ez da hala izan; eta jakin badaki ez daukala etxera bueltatzerik. Horrela egingo balu, garbitu egingo lukete. Eta etortzerik ez daukanez, eta bizitzen Frantzian segitu beharko duenez, andrea eta lau seme-alabak hara eramateko plan zehatza egin du arrantzaleak. Thereseren zeregina da plan horren xehetasun guztiak Mariari azaltzea, ihesaldia ondo gauzatzeko.

Familia horren patu tristea gogoan duela, erdi lozorroan geratu da. Halako batean, hondartzako isiltasun hartan, pauso hotsak sumatu ditu hondar gainean. Norbait hurbiltzen ari zaio. Burua pixka bat altxatu, begiratu eta... beragandik hogeit bat metrora bi gizon ikusi ditu, berdez jantziak, buruan kolore beltzeko hiru puntako txapel okerra eta bizkarrean zintzilik fusila...

Pasioaren indarra

Garazi Urretabizkaia

Iluntzeko 21:00ak dira. Bilboko Deustu auzoan kokaturik dagoen Fun lokalaren parean daude biak, bikote maitemindu baten antzera, eskutik gogor helduta. Badirudi lokalaren sarreran kokaturiko neoizko argi erakargarriek ez dutela berenezinegona baretzen. Urduri daude. 40 euro eta milioika pentsamendu nahasi soilik daude oraingo egoeraren eta bizia alda diezaiekeen akzioaren tartean. Eta duda-mudatan galduta dauden honetan, bakoitzaren buruak hegan egiten du; betiere norabide ezberdinetan. Elkarri begiratzen diote, bata bestearen begietan babesa topatu nahian edo. Eta, seguru ez dagoenaren ziurtasun faltsuaz, badirudi aurrera jarraitzeko prest daudela...

Aitziber

Nork esango zidan niri orain dela hiru urte puntu honetara iristeko gai izango nintzenik? Beti izan naiz maitasunaren jarraitzaile porrokatua. Baina bete berri ditudan 28 urterekin mila era ezberdinetan maitatzen ikasi dut. Nerabea nintzenean, beti pentsatzen nuen harreman perfektuak existi zitezkeela. Pelikuletan bezala. Orain ohartzen naiz zenbat min egin zidaten txikitan hain gogoko nituen Disney pelikulek eta, gaztetxoa nintzenean, bata bestearen atzetik irensten nituen komedia erromantikoek.

Asko izan dira ustez nire bizitzako kidea izango dena aurkitu aurretik izan ditudan harremanak. Tira, asko ere ez, baina batzuk bai. Ez naiz berria maitasun kontuetan. Eta guztiak izan dira erabat ezberdinak. Hasieran, bikote bat nuenean, dena ematen nuen. Orain ere bai, baina era ezberdin batean. Orain arte beti besteari ematen nion garrantzia, nahiago nuen alboan nuen pertsona pozik eta gustura ikustea ni zoriontsu izatea baino. Eta horrelaxe joan zait. Baina orain ezberdina da. Ezberdinegia, agian. Lehen modu berekoian maitatzen nuen. Nirekin zegoena nirea balitz bezala. Jeloskortasuna izan ohi zen nire harremanetan eguneroko oia. Baina ez nire aldetik soilik. Horregatik beti pozoituta bukatzen nuen erlazio toxiko horietan. Pozoituta eta indarririk gabe. Izate osoa lapurtu izan balidate bezala. Auto-estimua esanahia hiztegian

ere azalduko ez balitz bezala. Eskerrak egoera aldatu den...

Hiru urte igaro dira elkar ezagutu genuenetik. Eta bera izan da nire burua baloratzen eta era ezberdin batera maitatzen erakutsi didana. Esperientziaren afe-rak... Zerbaitetarako da ni baino 14 urte zaharragoa! Baina, dena den, esperientzia eta denbora medio, ez nuen sekula pentsatuko puntu honetara iritsiko nintzenik. Hementxe gaude, gau baterako bikote trukea eskaintzen duten lokal horietako baten aurrean. Eta urduri nago. Ez da nik egin nahiko nukeen zerbait, ez oraingoz behintzat. Beti esan izan dut ez naizela pertsona bakarrarekin bizi osoan harremanak izaten ikusten. Zertarako da ba sexua, gozatzeko ez bada? Baina oraingoz gustura nengoen geunden bezala. Baina badirudi berak zerbait gehiago behar zuela. Esperientzia berriren bat. Eta harremanak amore emate txikiak direnez maitasun emate handiak baina gehiago, ezin ezezkorik eman. Azken batean, nahiago baitut hori nirekin konpartitu eta gaur biok hemen egotea, alkoholez blaitutako gau zororen batean ni ez naizen beste baten besoetan alferrikako pasio iragankor bat topatzen ibiltzea baino.

Beldurrak alde batera utzi eta sar gaitezen beraz... eta eman dezala gauak eman beharrekoa. Nik ez dut ezer asko egiteko asmorik. Aukeratzen dugun pertsonarekin solasaldi bat izan eta etxera. Berak egin dezala egin nahi duena. Behin hemendik aterata elkarri gaua nola joan den ez kontatzea erabaki dugu, sortu litekeen mina gutxitze aldera edo. Ea zer gertatzen den...

Iker

Begietara begiratzuz gero lasai dagoela ematen du. Nork esango zidan niri azkenean nire proposamena onartuko zuela? Eman duen pausoarekin zenbat maite nauen adierazi dit. Jakin, badakidalako beretzat gogorra izango dela. Baina nik beharrezkoa nuen. Ez berarekiko ditudan sentipenak aldatu edota gutxiagotu zaizkidalako, ezta pentsatu ere. Egundetik egunera ziurrago nago bera dela bizi hau konpartitzeko aurki nezakeen pertsonarik egokiena. Baina behean daukadan laguntxoarentzat ez

da nahikoa. Beti izan naiz sexu zalea. Eta zerbait berria probatzeko garaia heldu da. Agian gaurko esperientzia ez da uste bezain positiboa izango, baina ziur nago gure konplizitate eta konfiantzak gora egingo dutela.

Dardarizoka darabilkit eskua, bere eskutik darion izerdiaz gehiegi nabaritzen ez bada ere. Beno, beldurrak alboratu eta goazen barrura. Ea zerekin topatzen garen...

...

Eta 40 euroko sarrera ordaindu ostean, barrara gerturatu dira sarrerarekin eskaintzen den kortesiazko tragoa eskatzeko asmoz. Alde batetik bestera doaz beren begiradak, ikusten duten guztia momentuan barneratu nahiko balute bezala. Barraren eskuin aldean gortina beltz bat lurreraino iristen da, atzean ager daitekeena norberaren imajinazioan utziz. Barraren aurrean, berriz, tropel oso bat kabitute litekeen ohe bat dago. Oraintxe bertan libre dago, baina bertan jende aurrean sexua izatea gogoko dutenei beren fantasiarik sutsuenak asebetetzeko aukera eskaintzen zaie. Edozein exhibizionistarentzat paradisu hutsa. Berentzat, berriz, ez hainbeste. Bertan inor ez egotea eskertuz, lehen tragoa eman diote esku artean duten kubatari. Sekula ez zaie voyeur izatea gustatu. Ez batari, ez besteari. Gauzak intimitatean egitearen aldekoak dira, beste asko ez bezala.

Beren pentsamenduek eta etengabe ahoratuz dardarbiltzaten kopek ez dute konpas berean dantzatzeko. Kanpotik ikusita, lasai daudela dirudi. Honelako egoerak bizitzera ohituta baleude bezala. Baina barrutik sortutako ezinegonak bekokitik behera etengabe isurtzen zaizkien izerdi tantei ematen die pausu.

Inguruan aurki daitezkeen ohe, gortina beltz eta abarrak alde batera utzita, gaurko gauean beren bikote berria izango denaren bila hasi dira. Barra ertzean, berengandik urrun, bikote bat ikusi dute. Gizonak 50 urte inguru izango ditu; emakumeak, aldiz, 56. Helduegiak beharbada. Beren begiradek barraren norabideari jarraitzen diote, ehizan dabilen animaliak beren harripakinari begiratzen dioten grina berdinez. Bi nerabez osaturiko bikote bat, altueraz beren gusturako txikiegiak diren beste pare bat pertsona... Eta bat-batean, hor! Bien begiradak puntu estrategiko batean iltzatu dira. Berengandik 4 metro ingurutara. Begiradak tokitik mugitu eta berriz ere begietara begiratu dira. Ezer esan gabe buruarekin baiezkota egin eta supituki berengana hurbiltzeari ekin diote. Gizonak 34 urte inguru izango ditu. Emakumeak, berriz, 40 bat. Biak itxura onekoak,

gorputz lirainarekin eta okasioak merezi duen arropa txukunekin hornituak. Halakoetan ohikoak diren “Kaixo, gabon” eta “nolatan ba hemendik” faltsuak alde batera utzi eta zuzenean joan dira harira. Beren lehen aldia dela azaldu diete; besteek, aldiz, lasai egoteko. Urte batzuk badaramatzatela noizean behin bertaratzen eta ikusiko dutela zeinen esperientzia positiboa izango den. Badirudi esperientziadunen hitzok lasaigarri efektua izan dutela gure protagonistengan. Bat-batean izerditzeari utzi, eta beren izu begiradak kuriositatez blaitu baitira.

Egoerak behartutako 20 bat minutuko solasaldiaren ostean, bikoteak trukatu eta bakoitza gela batera igaro da. Hemendik aurrera hasiko dira buruak berriz ere hegaka, pentsamenduak berriz ere ate joka, kontzientziaren arra berriz ere barneak nahasten... Baina tira, guzti hori bazekiten hona etortzea erabaki dutenean.

Aitziiber

Pareta gorria eta kolore bereko izarak dituen ohe dauden logela batean nago. Edozein pornstarren amestetako gelan. Ohearen goialdean, sabaian kokaturik, ispilu izugarri bat dago. Zure amorantearen eta norberaren mugimendu txikiena ere zuzenean jarraitu ahal izateko. Konplexuak dituen edozein pertsonarentzat txorakeriak alboratzeko terapia bikaina. Jose izena du nire ondoan zutik niri begira dagoen gizonak. 34 urte izanagatik guztiz urdindua du ilea, eta horrek interesgarriagoa egiten du. Ohean esertzera gonbidatu nau, ezin ezetz esan, tente egotea ez baita gogokoen dudana. Burua bueltaka darabilkit, ez dakit zer egiten ariko den Iker, ez dut pentsatu nahi. Baina, aldi berean, ezin dut beste ezertan pentsatu. Badirudi nire kideak nire barne janen berri duela, aurpegian islaturik izango banu bezala. Lasai egoteko esan dit, ez pentsatzeko. Alferrikako mina dela. Ez dudala zertan ezer egin behar. Berak sarritan igaro dituela gauak hizketan. Jo, zeinen ahots erakargarria duen... Begiak itxi eta erlaxazio saio batean nagoela iruditzen zait. Adonis batek gidatutako erlaxazio saio batean. Berak hitz egiten jarraitzen du, bere begirada nigan iltzatua duen bitartean. Eta, supituki, ohartzerako, begiak ireki eta nire ezpainak bere ezpain hertsia zabaltzen nahian dabilta. Ez dakit zer gertatzen zaidan, bere presentziak bereganatu egiten nau, bere ahotsak kitzikatu, bere begiradak urtu. Eta eramaten uztea erabaki dut. Musu bat, beste bat. Sakonago, bortitza,

goxoago. Pasioaumatzen dut zainetan barrena. Aspaldian Ikerrekin sexu jolasetan sentitzen ez nuen pasioa. Eta erotu egin naiz.

Bi aldiz pentsatu gabe eraman dut nire eskua bere praketara. Laguntxoaz pozik duela suma dezaket. Lasaiago joateko esaten dit, ez dagoela presarik. Baina ezin dut. Zenbat eta gehiago hitz egin orduan eta eroago jartzen naiz. Basatiago. Jada ez dut Iker egiten ari denaz ala ez denaz pentsatzen. Beno, ez horrekin eta ez beste ezerekin. Burua zuri daukat. Pasioak mugitzen ditu nire hari guztiak. Eta gustura nago...

Iker

Ikusi ordurako ohartu naiz bera izango zela gaur bezalako esperientzia berri bat bizitzeko bikote egokiena. Ni baino bi urte gazteagoa, zer egin behar den badakienaren itxura osoa dauka. Bere ile horia jostagarri erortzen zaio jada adin bat izanagatik oraindik ere gaztetxo dirudien aurpegi ia perfektu horretan. Genetikaren justizia. Gelara sartu orduko bere begi berdeak nigan iltzatu ditu. Ezpainaz hozkatzen du, bertan jan nahi nauenaren aurpegia jarritz. Eta gustura sentitzen naiz. Logela ez da izan zitekeen erakargarriena, pareta beltzek iluntasun gehiegizko bat ematen diete ustez positiboa izan behar duen jardunari. Baina, tira, sabaitik datorren led argi gorriak egoera baretzen du. Egoera baretu eta ni aztoratu. Biak batera. Ia hitzik esan gabe nigana gerturatuz doa, pixkanaka. Nire begirada ere berean iltzatu da, berak adierazten duen pasioa elkarrenganakoa dela adieraziz. Eta zast! Hitzei bidea itxiz bere mingaina nirearekin jolasean antzeman dut. Behealdean zerbait pixkanaka puztuz doala sumatzen dut. Plazera, gogoa, ametsa, ilusioa. Dena batera eta dena nire aurrean. Ohera bultzatu nau, indarrez. Sexu gogorrari eskua eman nahiko balio bezala...

Baina ez dakit zer gertatu zaidan. Ohera bultzatu eta nire gainean grinez jarri den unean denak gainbehera egin dit. Laguntxoak, pasioak, pentsamenduek, nik. Eta, mesedez, gelditzeko eskatu diot. Muxuen jolasean gustura nenbilen, baina ez dudala hortik pasa nahi ohartu naiz. Aitziberren irudia etorri zait gogora. Gaixoa. Nigatik ez du zertan trago txar hau pasa. Neska tokiz kanpo geratu da. Ea zer gertatzen zaidan galdetu dit. Lasai egoteko. Ez dudala zertan ezer egin behar. Betiko diskurtsoa. Eta ez, ez dudala ezer egin nahi esan diot. Lasai nagoela, baina are lasaiago egongo nintzatekeela elkarrekin egoteko aurretik ditugun hiru orduetan hitz

egin soilik egingo bagenu. Eta berak, hasieran espero ez nuen irribarre batez, baietz erantzun dit. Berak ere kasik nahiago duela. Bi aldiz pentsatu gabe atera da gelatik. Bost minutu ere ez dira igaro beste bi kopa eskuetan dituela berriz ere barrura itzuli denean. Horrela bai, horrela poza ematen du... Ziur nago Aitziber bera ere berdinetan dagoela. Tira, finean beti da positiboa jende berria ezagutzea, ezta?

...

Igaro dira hitzartutako hiru orduak eta berriz ere lokalaren kanpoan daude biak. Bai batak bai besteak irribarre misterioitsu bat daukate aurpegian marrazturik. Eta biak lasai daude. Aitziberrek badakielako biak jolas berean ibili direla eta Ikerrek badakielako biek ez dutela ezertxo ere egin. "Zer moduz joan da?" elkarri galdetuta, biek "primeran" erantzun dute. Eta sartu aurretik bezala, eskutik gogor heldu eta autorantz abiatu dira. Baina oraingoan ez diete eskuek izerdiagatik irrist egingen...

Aitziber

Hiru ordu amesteko, bizitzeko, sentitzeko, eramaten uzteko. Arrazoi zuen Ikerrek, esperientzia positiboa izan da! Positiboegia, agian... hiru ordutan lau aldiz. Ez nuen nire ametsik ederrenetan ere hori imajinatuko. Eta, gainera, hitz egin eta elkar ezagutzeko denbora izan dugu... Ederra izan da, magikoa. Ez nuen nire espeleologo fazeta hori ezagutzen. Izugarritzko bidaia izan da. Ez dut sekula inorekin berarekin izan dudana jarrera hori izan. Lasaitasuna eman dit denbora guztian, eta nire alderik basatiena atera du. Nik ere existitzen zela ez nekien hori. Eta ze solasaldi... Gustu antzekoak ditugu. Ikerrekin baina afizio gehiago konpartitzen ditudala ohartu naiz. Gauza gehiago ditugula komunean. Ezin dut nire aurpegitik berak probokatu didan irribarre inozo hau kendu. Desiratzen nago datorren asteburuan berriz ere hona etortzeko. Ikerrek ere primeran joan zaiola esan du, berak ere itzuli nahiko du, beraz. Gustatu egin zait gizona. Askok, gehiegi. Nire printzipio eta sentipen guztiak balantzan jartzeko gai izan da hiru ordu laburretan. Posible al da hori? Ni seguru nengoen... Baina badirudi berriz ere dudak sortu zaizkidala. Berarekin bizitu dudana erreala bada, zergatik ez gehiago eduki? Bere mugikorreko zenbakia eman dit eta etxera bidean jada bost mezu bidali dizkit. Nire begirada behar duela. Nire ahotsa entzun nahi duela. Nire gorputza berriz laztandu. Nirekin batera bidaiatu,

amestu, gozatu. Ez dakiela astebete irauteko gai izango den ni ikusi gabe. Ezta astebete egon nahi duen ere. Berari badagokio bihar bertan gera gaitezkeela. Ea nik zer erantzuten dudana...

Eta zer esango dut ba nik? Ba, une honetan gauza bera pentsatzen dudala. Etxera iritsi garenetik ordu batzuk igaro diren arren, buruan bere irudia soilik daukadala. Ezin dudala Ikerrekin beti bezala egon. Eskutik heltzen didan edota laztantzen nauen bakoitzean arraro sentitzen naizela. Hotz. Nik ere bihar geratu nahi dudala erantzun diot. Iker lanera joatean libre nagoela. Has dadila berriz ere su festa...

Iker

Pozik sentitzen naiz. Nire jatorrizko instintuak baretu eta egoera kontrolatzeko gai izan naizelako. Elkarri ezer ez kontatzea erabaki genuen, baina ziur nago, esanez gero, Aitziber bera ere harro egongo dela. Dena den, datorren asteburuan berriz errepikatuko

dugu. Berak ere ziur aski nik bezain solasaldi ederra izango baitzuen. Jatorra izan da Olga nirekin. Terapia lanak egin dizkidala ere esango nuke. Nire bizitza laburtu diot hiru ordutan. Eta berak arazoen aurrean hau edo bestea egiteko gomendatu dit. Bera ere gustura egon da. Azken batean, sarritan gizonak nahi duelako bertaratzen direla onartu baitit, nahiz eta gero bera ere gustura egoten den. Gainera, non aurkitu dut nik psikologo merkeagorik eta berak (psikologia ikasketak ditu) paziente hobeagorik? Irribarre batez atera naiz lokaletik, nire buruarekin gusturago eta nire harremanarekin seguruago. Nork esperoko zuen?

...

Eta, horrela, ohea konpartituz, baina errealitate ezberdinetan barneratuta, datorren asteko zitaren zain lokartuko dira elkarri eskutik helduta. Aitziber hotz, bere adonisarekin pentsatuz eta Ikerrekin arraro sentituz, eta Iker gustura, Aitziberren hostasun hori berak zerbait egin duenaren beldurrari atxikiz.

Lokartzeko ipuinak

Marisa Arruabarrena

Gu haurrak ginenean, infinitua oraino baino askoz gertuago zegoen.

Aulki jokoa

Uxue Alberdi

Irune eta Eneritz lokartu aurretik algaraka jartzen ditudanetako bat. Zeinen ondo pasatzen dugun! Egunen batean hauek guztiak irakurtzen badituzte beraiekin bizi izan ditudan une ahaztezin eta paregabe hauetaz jabetuko ote dira?

Beraiei esker jakin dut benetan zer den ama izatea.

2001-2002 ikasturtekoa

Gauero bezala, oheratzerakoan, ipuinen garaia iritsi zaigu. Batzuetan, beraiek irakurtzen dituzte; bestetan, berriz, hori nire lana izaten da. Holakoetan, bien erdian etzaten naiz eta aurrez aukeratutako ipuinari ekiten diogu. Batak ez duela tokirik eta besteak harantzago joateko... 90 zentimetroko ohean ezin miraririk egin! Dena dela, punto de cruzen egindako erlojuko orratz handia goiko ahatera iristen denean, hamabira —1 eta 2ra, alegia— lotarako garaia izaten da. Ordurako ez bagaitu loak hartu, muxu bana, bakoitza bere ohera eta bihar arte.

Etxeko ipuin guztiak ezagunak ditugulako edo, egia esan, nik ez dudalako gogorik bien erdian etzan eta hasteko, agian antzerkigile bihurtzeko tenoreagatik, lau begi itaunkor hauen aurrean ekiten diot momentuko inprobisazioari. Hauxe izaten da eguneko momenturik magikoena! Inoiz ez zait ahaztuko gure bi txikien intriga aurpegia; algarak eta lotsa paperak batzuetan eta, beldurrak eta haserreak, besteetan. “Ez ama, horrela ez, menditik behera erori zena Praixku izan zen...” Horrelaxe, eta beraiei esker, mila eta bat ipuin asmatu ditut. “Ama, atzokoa kontatu berriz” Baina ezin, inoiz ezin izan dut ipuin bera bi aldiz berdin kontatu. Beti bada zerbait aldarazten diguna; izan daiteke telefonoz aitatzok deitu digulako, Eneritzek komunera joan behar duelako edo Irunek ikastolan gertatutakoa aipatzen duelako...

Horrela bada, aurreko gauean elkarrekin asmatu genuenarekin hastera noa. Hemen duzu *Aitona Joxe Manueleen kontuak*.

AITONA JOXE MANUELEN KONTUAK

2001eko urtarrilaren 9a, ederki freskatu du. Umeak

oheratu aurretik jertsea jantzi beharko dut.

—Benga, umeok, ohera!

—Ama, ipuin bat kontatu!

—Ez, gaur ez.

—Bai ama, kontatu.

—Zeuek irakurri.

—Ez ama, zuk kontatu...

Pukaseko jertseak duen txanoa enkasketatu dit Eneritzek. Belarriak kanpoan jarri eta piura honekin aitona zahar baten itxura hartu dut. Kokotsa aurrealdera ekarriz, hortzik gabe dagoenaren imintzioak egiten hasi orduko, algaraka jarri dira biak...

—Treintaixieteko kontuak dira hauek. Garai hartan bai sasoia gurea. Ene! Ederki moldatzen ginen, bai, bai, bai. Eta nere Maitxu. Hura bai emakumea. Bai, bai, zuen amona...

—Ez, ez, gure amona Inaxita da.

—Baina, Eneritz, ama asmatzen ari da. Orain bera aitona Joxe Manuel da —Irune, beti bezala, ahizpa txikiari esplikazio denak ematen!.

—Garai hartantxe gertatu zitzaidana ere ederra izan zen. Aurreko egunean ez naiz oso ondo gogoratzen, baina uste dut babarrunak jan genituela. Haiek bai babarrunak, bai, bai gure Maitxu sukaldari galanta zen, eee...

—Benga, ama, segi.

—Ene, ene, zertan ari nintzen bada, eee...

—Babarrunak jan zituela aitona!

—Bai, bai, eder askoak! Beno bada, komunera joateko larria etorri zitzaidala gogoratzen dut. Gure baserriko komuna ez zen gaurkoak bezala. Hamabost eskailera igo eta ezkerretara bigarren atea zen. Justu-justu kabitzen nintzen ordurako, gaur egun ez nintzen kabituko ehun eta bost kilo hauekin... Goretti sendagileak hala esan dit: “Joxe Manuel, plakatzen hasi behar duzu.” Zer uste ote du horrek, ni plakatu? Ezertako indarrik gabe geratuko nintzateke eta gero...

—Ama, segi ipuinarekin...

—Bai, bai, eee... A, bai! Komunera joan nintzen eta

lasai geratu nintzenen, hasi nintzen bada egin beharrekoak egiten eta, ene! paperik ez.

—Maitxu! Maitxu! Ez dagoela paperik!

—Baina Joxe Manuel, atzo esan nizun ahitu zela eta gaurkoagatik nolabait moldatu beharko genuela!

—Bai, baina zer egingo dut nik orain?

—Itxoin ezazu pixka bat. Atzo kartoi puska bat bazen sukaldean eta huraxe ekarriko dizut...

Hantxe geratu nintzen ni komunean eserita, zai eta zai, eee...

—Eta?

—Ba, Maitxuk behetik buila egin zidan: “Joxe Manuel, zerorrek botako zenuen sutara, ez dago kartoirik”. Eta zer egin behar nuen nik, ipurdia dena zikin-zikin eginda neukan.

—Ba hartu hostoak.

—Nola hostoak?

—Bai, esan amona Maitxuri kanpora joateko eta ekartzeko zuhaitzetako hostoak ipurdia garbitzeko.

—Bale. Hori egingo dut. Piura horrekin ezingo nintzela behera jaitsi eta halaxe esan nion: “Maitxu, joan zaitez kanpora eta ekarridazu orbela”.

—Ama, zer da orbela?

—Udazkenean, zuhaitzei hostoak erortzen zaizkirenean, azpialdean gelditzen direnen multzoa

—A! Orduan horrekin garbitu zuen Aitonak ipurdia...

—Baina, Joxe Manuel. Ba al dakizu zein giro dagoen hor kanpoan?

—Ez duzu nahiko, bada, ni ipurdi bistan jaistea?

—Ondo da! Ene! Gizon hauekin beti berdin! Lan guztiak niretzat! Eta orain zer? Ederki! Haize zakar honek hosto denak eramanez ez ditu bada! Txukuna jarriko da gure Joxe Manuel... Joxe Manuel, Joxe Manuel, ez da orbelik kanpoan eta ni ikuilura noa, behi gorria deika ari zait...

—Orain zer egingo dut nik, eee...

—Ama, urarekin garbitu!

—Ene, umetxo, gure garai haietan ez zen urik izaten komunean. Baserri guztian iturri bakarra zegoen eta bera alemana, osaba amerikanuak azken bidaiatik ekarria. Bai, parrandero galanta hura! Inoiz ez zuen izaten lanerako gogorik eta Ameriketara ez zela lanik

egiten esan ziotela Martzelinarenean eta joan ez zitzaigun, bada, Ameriketara! Azkar asko bueltatu ere...

—Baina, aitona, segi bada zure kontu harekin!

—Bai, bai. Halaxe nintzen ni, bezperako babarrunak deskargatuta eta ipurdia zikin-zikin. Beste erremediorik ez eta badakizue, eskubiko eskuaz igurtzi, galtzak jantzi ahal nuen bezala eta...

—Aj, ipurdia zikin-zikinarekin!

—Eta eskua ere bai! *Qué cochino!*

Momentu honetan izan duten katxondeoa izugarria zen. Batetik nazka aurpegia eta bestetik aitona Joxe Manuelen irudia eskailerak jaisten, galtzei eutsi ezinik eta eskua kakaztuta...

—Halaxe, eskaileretatik behera nindoala, han non ikusten dudana sarrerako atea irekitzen. Don Andres apaiza. Ai, umeok! Garai hartan erretorea gizon handia izaten zen. Hura ikusi bezain pronto imintzio guztiak gutxi izaten ziren. Etxeko ardorik onenak, jaki gozoenak... Denak gutxi izaten ziren tripazaku haientzat. Eta badakizue euskaldunon ohitura betidanik inoiz agurtzean eta erretoreei gehienbat, bostekoa ematea izan dela.

—Ja, ja, ja! Dena kakakin!

—Bai, pentsa ezazue. Nola gogoratuko nintzen bada ni, komunekoaz. Sukaldera iristeko beste lau bat metro faltako ziren eta iturria urruti zegoen

Hura ere gertatu zitzaidan, bada! Erretorea konturatu zenean bostekoa epelegia zela, azkar asko alde egin zuen guretik. Ez zen makala izan esku artean eramanez kiratsa!

—Aj, zer nazka!

—Ederra gertatu zitzaion, e, Irune?

—Niri hori egin bazidan Aitonak, aj...!

—Hurrengo igandean sermoian halaxe esan zuen: “Gaur egun ez dago lotsarik. Zuen arimen alde egiten dugun guztia eta zuek zer eta...”

—Beno, Irune eta Eneritz, erlojua hamabira iritsi da. Zer, gustatu al zaizue gaurkoa?

—Bai, ama; bihar berriz.

—Beno, muxu potolo bat eta ondo lo egin. Amets goxoak izan! Bihar arte!

—Bihar arte! Aitari ere eman muxu etortzen denean!

Miren Elizalde

Omenalditxo bat

Garazi Urretabizkaia

Nik ez daukat bertsolari sena
ezta zure ahots fina,
ezta kukuak gau ilunean
sortu lezakeen grina;
baina orriaren aurrean jarri
ta egingo dut ahalegina
gaurkoan behintzat izan zaitezen
Orioko erregina.

Sarritan gehiegi kostatzen zait
sentipenak adierazten
pentsatu, sentitzen dudana hori
hitz gutxi batzuz esaten,
baina gaurkoan beldurra kendu
ta hemen nabil idazten,
zurekiko sentitzen dudana
guztiek jakin dezaten.

Emakume ederra, jatorra
ta ama paregabea,
etxeko andre fin, langilea
amona ezin hobea.
Pazientziadun bala txikia
ta gainera dotorea,
hitzez ezin neurtu liteke
zuk daukazun adorea.

Zure irribar goxoa eta
zure izate gardena,
zure begi txikien distirak
transmititzen duen dena,
bizitza bizi ta sentitzeko
adierazten duzun sena,
datozen urteotan amona
segi izaten zarena!

Beste askok baina hobe dakizu
bizitza eder hau sentitzen,
norbaiti zerbait gertatuz gero,
laster duzu nabaritzen.
Zuk segi dituzun baloreak
familiar transmititzen,
erakutsiaz ikasten baita
era hobean bizitzen.

Txikitatik dastatu izan dut
zure besoen beroa,
zure altzoak eskaintzen didan
goxotasun oparoa...
Heldu eskutik elkarri eta
eman dezagun pausoa,
orain arte bezala batera
dasta dezagun geroa!

Ikastolara etortzen zinen
egunero nire bila,
bazkaria ematen zenidan
beti izan zara abila,
arratsaldero karta jokoan
pasatako ordu pila...
Zerua irabazia duzu
Jainkoa ohar dadila!

Zure alboan egin dut amets,
irri, negar ta garrasi
kolpez kolpe eta pausoz pauso
bizitza zer den ikasi
nahiz dena ondo ez dudana egin,
aurrera bidea dut hasi,
zuri esker naizela naizena
gaur nahi dizut adierazi.

Balkoian pasatako orduak
une ahaztu ezinak,
parranda osteko gosariak
maitasun osoz eginak,
konplizitatearen indarrak
sortutako irri finak
hitzik gabeko maitasun baten
adierazle haundinak

Bihotz haundia gorputz txikian
ia ezin da kabit
bizitza honek horrelakoak
sarritan izaten ditu.
Azken gauza bat esan nahi dizut
amona ondo aditu:
ni bezalako bat agoantatzen
baduzu nahiko meritu.

Hitzez ezin adieraz dezaket
niretzat zaren guztia,
zu baitzaitut nire iparrorratza
erreferente garbia,
une ilunenak argitzeko
beharrezko eguzkia...
Hitz batean esanda, amona,
zu zara nire bizia.

Bilobaren sentimendua da
amaigabea, sakona,
bihotzaren txoko ezkutuan
sarri gordeta dagona.
Gaurkoan barnea hustu asmoz
gerturatu naiz ni ona
Oriok jakin dezan nik zenbat
Maite zaitudan, amona!

Herritik urruntzean

Goiuri Unanue

Herritik urruntzean ohartu naiz,
aberria atzean uztean ohartu naiz,
hitz batek atzean duen historia,
mendi batek magalean duen bizia.

Itsasoak zaintzen gaitu,
Kukuarrik babestu,
Nola ez nintzen lehenago konturatu?

Altxor bat dugu eskuartean,
konturatu naiz bat-batean,
eta promes egingo dut,
beti mantenduko dut
altxor hori babesean.

Ez dut utziko, itsas piratek,
ertz batetik zein bestetik
eraso egitea,
erbesteak erakutsi baitit,
guk dugun hori
ezin dela inon aurki.

Ama, alaba, lagun, maitale
hitz, harri, aire, itsaso,
Jar zaitezte momentu batez,
zerutik herriari so,
gurea da, gu gara,
mendez mende, pausoz pauso,
berezi egin gaituena.
Ama, amona,
Euskal Herria.

Erabaki dut

Marisa Arruabarrena

Badut esperantza berri bat.
Baita bestelako poesia egiteko grina.
Zoriontasuna ez dago,
ordea,
norbaitengan...
Zoriontasuna
guztiaren batuketa da
eta
bakar batean oinarritzeak
hankamotz uzten zaitu.

Ni gaur zoriontsu nago,
baina herenegun ez
eta bihar
ez dakit...
Baina daukadanari ondo heltzen
ikasi dut.

EZ DIOT IHES EGITEN UTZIKO!

Hemendik aurrera
eutsiko diot;
baina, horretarako,
LAGUNTZA ESKATZEN
ikasi dut.

Ez naiz superwomana.
Ez naiz maitalerik sutsuena.
Ez naiz amarik martxosena.
Ez naiz alabarik zintzoena.
Ez naiz ahizparik-arrebarik maiteena.

Baina naizena naiz
eta
Zoriontsu izan nahi dudala
ERABAKI DUT.



Euskaraz
bizi-bizi

